



2016KO APIRILAREN 21EAN BATZARRAK EGIN ZUEN EZOHIKO ETA PREMIAZKO BILKURAKO AKTA.-

Tolosako udaletxearen Pleno aretoan egin du bilera 2016ko apirilaren 21ean, 18:30etan, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN Batzarrak, JOSU AMILIBIA ALSUA Lehendakaria mahaiburu delarik, eta horretara ondoren zerrendatuko diren udaletako alkate eta zinegotziak bertaratu dira:

BERTARATUAK:

BATZARRAREN LEHENDAKARIA (%0,77): Josu Amilibia Alsua
ALEGIAKO UDALA (%2,85): Unai Iraola Aguirrezabala
ALKIZAKO UDALA (%0,61): Jon Umerez Urrezola
ALTZOKO UDALA (%0,65): Josu Astrain Azkona
AMEZKETAKO UDALA (%1,58): Iñaki Amundarain Tolosa
BERASTEGIKO UDALA (%1,72): Amaia Azkue Eizagirre
BERROBIKO UDALA (%0,93): Joseba Iñigo Aiertza Mujika
GAZTELUKO UDALA (%0,28): Edurne Garcia Azurmendi
HERNIALDEKO UDALA (%0,57): Igaro Balda Izagirre
IBARRAKO UDALA (%6,95): Mikel Agirrezabala
LARRAULGO UDALA (%0,42): Aritz Sarria
LEABURU-TXARAMAKO UDALA (%0,61): Itziar Zubelzu Urbietta
LIZARTZAKO UDALA (%1,05): Jose M^a Sarasola Etxeberria
ORENDAINGO UDALA (%0,32): Gorka Egia
OREXAKO UDALA (%0,20): Eneko Maioz Ganboa
TOLOSAKO UDALA (%30,91): Patxi Amantegi Zubiria
ZIZURKILGO UDALA (%4,89): Aitor Sarasua Arruti

ETORRI EZ DIRENAK:

ABALTZISKETAKO UDALA (%0,54)
ALBIZTURKO UDALA (%0,53)
ANDOAINGO UDALA (%23,92)
ANOETAKO UDALA (%3,09)
ASTEASUKO UDALA (%2,49)
BALIARRAINGO UDALA (%0,21)
BELAUNTZAKO UDALA (%0,42)
ELDUAINGO UDALA (%0,39)
IKAZTEGIETAKO UDALA (%0,76)
IRURAKO UDALA (%2,73)
VILLABONAKO UDALA (%9,61)

GAI ZERRENDA

Hona hemen bilerari dagokion Gai-zerrenda:

- 1. Aparteko Batzarraren urgentziatzko izaera berrestea.**
- 2. 2016ko martxoaren 22ko Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak eta GHK SAUren erabakiak inpugnatzeko aukera, eta horretarako Lehendakaria ahalmentzea, behar izanez gero, abokatua eta prokuradorea izendatuz.**
- 3. Galde-erreguak.**

Mankomunitatearen Idazkari den Jose Luis Unanuek eman dio fede aktari, Gemma Eceiza Mankomunitateko teknikariaren aurrean.

Lehendakariak Andoain, Anoeta, Asteasu eta Baliarraingo ordezkariak gutunak aurkeztu ondoren eta Idazkariak estatutueta 18.2 artikuluan diona egiaztatu ondoren, aipatutako udalerrri hauen ordezkariak jarraian agertzen den moduan geratzen da:

ANDOAINGO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

ANOETAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

ASTEASUKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua.

BALIARRAINGO UDALA: Ordezkaria, Mikel Joseba Telleria Irastorza.

Estatutuen 45. artikuluan xedatzen den bilerakideen kopurua bete denez lehenengo deialdian, Batzarra eratutzat jo da. Horrekin, gai-zerrendako gaiak aztertzeraz jo dute bilerakideek.

1. Aparteko Batzarraren urgentziatzko izaera berrestea.

Lehendakariak hartu du hitza, Aparteko Batzar honen deialdiaren premiazko izaera arrazoitzeko, eta adierazi du GHK SAUren martxoaren 22ko Batzarrean hartutako erabakiak inpugnatzeko alegazio epea irekita eta amaitzear dagoela.

Ondoren bozketa egin da. Tolosako Udaleko ordezkariak aurkako botoa eman du (%30,91) eta gainerako hogeitau Udaleko ordezkariak aldeko botoa (%54,11). Emandako botoak ikusita eta Batzarreko botazioetan erabakiak hartzeko Estatutuen 46. artikuluan xedatzen den gutxiengo kopurua bete denez, Batzarrak

ERABAKI DU

LEHENA.- Aparteko Batzarraren urgentziatzko izaera berrestea.

2. 2016ko martxoaren 22an Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak eta GHK SAUren erabakiak inpugnatzeko aukera, eta horretarako Lehendakaria ahalmentzea, behar izanez gero, abokatua eta prokuradorea izendatuz.

Lehendakariak hartu du hitza, gaiaren aurrekariak eta proposamena azaltzeko:

“Pasa den martxoaren 22an Gipuzkoako Hondakien Kontsorzioko ez ohiko eta presazko Batzarra eta GHK SAU-ren Biltzar Nagusia egin ziren. Bertan hartutako erabakiak oso kezagarriak dira.

Alde batetik, Kontsorzioaren izaera bera aldatzen da. Zeribtzu zuzena eskaintzeko sortu ziren, eta, orain, zeharkako moduan kontratatzeko aukera irekitzen da, hau da, enpresa pribatu baten esku Zubietan eraikiko diren azpiegituren (Errauskailua barne) eraikuntza eta kudeaketa bideratzea da. Sozietateari, aldiz, kontsorzioarekin zuen harremana erabat aldatu eta, exekuzio ardurak izatetik, kontrol eta kudeaketa ardura indefinitu batzuk eman nahi zaizkio. Indefinizio hau ez da ausazkoa, legeak onartzen ez dituen eginkizunak emateko prest daude enpresa berriari.

Horrelako erabaki garrantzitsu bat presazko Batzar batean hartzea oso larria da. Bost egun besterik ez zituen izan Mankomunitateko ordezkariak dokumentazioa aztertzeko. Diru publikoko milioika euro jokoan dauden eta enpresa pribatu batekiko 30-35 urteko lotura sortuko duen erabaki bat modu honetan hartzea ez da legezkoa.

Arrazionalizazio lege berriarekin kontsorzioek ezin dute enpresa berririk sortu. Lehendik sortuta zegoen GHK SAU, baina bere eginkizuna erabat aldaturik lege iruzurra egite da, de facto enpresa berria sortuz aurrekoa erabiliz.

Estatutuen behin behineko aldaketen ondoren beste erabaki batzuk hartu dira: erregelamenduaren aldaketa, kudeaketa mandatuaren aldaketa, zerbitzuen erregelamenduaren aldaketa, etab... Kontutan eduki behar da aldaketa hauek ermateko Estatutuen aldaketa beharrezkoa dela, baina Estatutu berriak ez daude indarrean; ondorioz, ez da posible erabaki guzti hauek hartzea egoera honetan.

Hondakinen Kontsorzioan dagoen Tolosaldeko Mankomunitateko ordezkariak ezezko bozka eman zioten Batzarrean proposatutako puntu guztiei. Emandako pauso askotan legea ez dela betetzen iruditzen zitzaielako, ondorioz, Tolosaldeko Mankomunitatearen interes eta eskubideen defentsan, dokumentazioa sakonki aztertzeko eta etorkizunean behar diren neurri guztiak hartzeko Tolosaldeko Mankomunitateko Lehendakariak proposamen hau egin du:

1.- Mankomunitateko Lehendakaria den Josu Amilibia Asua ahalmentzea Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioa eta GHK SAUk martxoaren 22an hartutako erabakiak inpugnatzeko, abokatua eta prokuradorea izendatuz, behar izanez gero. Baita ahalmentzea etorkizunean Tolosaldeko Mankomunitatearen interesak eta eskubideak defendatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko aukera edukitzea Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioan eta GHK SAU-ren inguruan ematen diren mugimenduen aurrean (Dokumentazioaren azterketa, helegiteak...).

2.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioari eta GHK SAUri proposatutakoa jakinaraztea.”

Patxi Amantegi Zubiria, Tolosako Udaleko ordezkaria: “Ez dut ondo ulertzen zer den gaur bozkatu behar duguna, GHK SAU-ren erabakien inpugnazioa edo erabaki horiek inpugnatzeko Lehendakariari ahalmena ematea?”

Idazkaria: “Lehendakaria ahalmentzea da bozketan erabaki behar dena, hau da, inpugnazio horretarako fakultatea eman ala ez erabakitzea.”

Amantegi Jn. (Tolosako Udala): “Eta hau nola egiten da normalean edo nola egin daiteke beste modu batera? Hau da, Tolosaldeko Mankomunitateak baditu 3 ordezkari GHK SAU enpresan, eta bertako erabakiren batekin ados ez badaude, nola jokatu behar dute?”

Idazkaria: “Mankomunitatearen 3 ordezkari horiek GHK-ko batzarretako bozketan parte hartu behar dute, baina ezin dituzte erabakiak zuzenean bertan inpugnatu. Hori Mankomunitateak egin dezake, ez ordezkariak.”

Amantegi Jn.: “Ez dut ulertzen zein den desberdintasuna”.

Idazkaria: “Inpugnazioa sartzeko ahalmena edukitzea ala ez, hori da ezberdintasuna”.

Amantegi Jn.: “Bada nik ez dut horretarako beharrik ikusten. Horrez gain, iruditzen zait bilera hau egin aurretik informazioa eduki beharko genukeela Mankomunitatea osatzen duten Udaletako ordezkariak, eta ez daukagu. Inpugnatu nahi diren erabakiak martxoaren 22koak badira, ordutik hilabete igaro da, eta izan da nahikoa denbora informazio hori aldeztatik emateko. Izan ere, batzar honetan inpugnazio bat egitea ahalbidetzea erabakiko da, jakin gabe inpugnazio hori zertarako den. Eta bi eguneko aldearekin abisatuta gainera. Noski, ez gaude ados GHK-ak erabilitako moduekin eta horretaz kexatu egiten gara, baina hemen orain gauza berbera gertatzen ari da. Moduak zaindu egin behar dira eta informazioa behar den denboran eman. Agian baliteke informazioa zuek lehendik edukitzea eta nik ez. Baina berriro diot, gaizki deritzot GHK-ak bost egun lehenagoko epearekin informatzeari, baina horrek ez du eskubidea ematen orain zuek bi eguneko epe batekin erabakia hartzeko.

Bestalde, ez diot inpugnatzeari inongo funtziorik ikusten, ez delako ekintza praktikoa bat, sinbolikoa bakarrik. Mankomunitateak bertan dituen 3 ordezkariak bozkatu zituzten bere garaian GHK-ren erabakiak, eta horrela parte hartu behar da joko honetan, jakinik zenbat bozka dituzuen. Beste inork ez die erabaki hauei inolako alegaziorik jarriko. Aldiz, zuek muturrera eramanez nahi duzue gaia. Ikuspegi politikoa du horrek, ez praktikoa, eta gainera diru asko gastatzea ekarriko du Mankomunitatearentzat.”

Unai Iraola Agirrezabala, Alegiako Udaleko ordezkaria: “EH Bildu alderdikook badakigu gutxiengo egoeran gaudela bozketan parte hartzerakoan. Baina erabaki bat gehiengoan hartu izanak ez du esan nahi erabaki hori legezkoa denik. Eta honen aurrean, eta ikusirik itxuran behintzat GHK legez kanpoko erabakiak hartzera doala eta Gipuzkoa 35 urterako zorpetzera doazela, inpugnatu egin nahi da. Nahiz eta gutxiengo egoera batean egon eta hau egingo duten bakarrak gu izan, azken finean, Mankomunitateko ordezkari bezala, gure interesak defendatzeko eskubidea daukagu.”

Lehendakaria: “Informazioa hemen dagoena da, ez dago besterik. Eta informazio honekin indizioak besterik ez ditugunez, horregatik ikusten da gai hau abokatu eta aholkulariekin kontsultatzeko beharra. Gai hau gehiago ikertzea eskatzen dugu, GHK SAUren erabakiek izan ditzaketen ondorioak estimatu ahal izateko. Eta honen harira, presazkotasuna argia da. GHKren batzarra Aste Santuko oporren aurretik egin zuten hain justu, eta gai honekin lanean aritu naiz geroztik. Ezin da presazkotasun bat bestearekin alderatu. Izan ere, batzar hartan etengabe esaten zen “Gipuzkoako egoera dela eta”, hau da, denbora bat eraman dute egoera aztertzen eta txosten sakon bat prestatzen, eta deialdia bost egun edo hamabost eguneko epearekin eginda ere, ez zen gehiegi aldatuko. Aldiz, gure kasuan erabateko alde markatzen du epeak, inpugnazioa jarri ahal izatea edo ezin izatea suposatzen duelako. Deialdia bi egun lehenago egin behar izan dugu, eta bi aste epearekin egin izan bagenu, erabakiak inpugnatzeko aukera galduko genukeen. Eta daukagun informazioa denbora berean jaso duzue guztiok.”

Amantegi Jn.: “Berrit diot, bakoitzak berea egin behar duela. Ziur lan asko egin duzula, baina halere Mankomunitateko ordezkariok ez zaigu informaziorik iritsi. GHK-ak bost egun bakarrik eman izanak, nahiz eta zurrerik izango dituzten horretarako ere bere arrazoiak, hau da, GHK-ak epe lepe laburregia eman izanak, ez du hau justifikatzen. Batak gaizki egiteak ez du kentzen besteak ere gaizki egin izana. Eta orain hemen informaziorik gabe bozkatzera goaz. GHK-ko Mankomunitatearen ordezkariak hiru dira, eta GHK-ko batzar hartan egon ziren pertsonak hiru dira. Martxoaren 22tik hona hilabete igaro da, eta denbora guzti horretan, gutxienez azaldu zeniezaguketen informazioa bilera batean. Ez zait ondo iruditzen orain irakurketa azkar bat eginda bozkatu behar izatea.”

Lehendakaria: “Aurkeztu dugun informazioa orrialde bakar bat da, daukaguna eta orain arte eduki duguna hain zuzen ere. GHK-tik atzo iritsi zitzaigun martxoaren 22ko batzarren akta, bertan aipatzen zen txostenarekin batera. Bada txosten horrek 110 orrialdetik gora ditu, aldea ikusteko.”

Behin hori esanda, bozketa egin da. Tolosako Udaleko ordezkariak aurkako botoa eman du (%30,91) eta gainerako hogeitau Udaletako ordezkariak aldeko botoa (%54,11). Emandako botoak ikusita eta Batzarreko botazioetan erabakiak hartzeko Estatutuen 46. artikuluan xedatzen den gutxieneko kopurua bete denez, Batzarrak

ERABAKI DU

LEHENA.- Mankomunitateko Lehendakaria den Josu Amilibia Alsua ahalmentzea Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa eta GHK SAUn martxoaren 22an hartutako erabakiak inpugnatzeko, abokatu eta prokuradorea izendatuz, behar izanez gero. Baita ahalmentzea etorkizunean Tolosaldeko Mankomunitatearen interesak eta eskubideak defenditzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko aukera edukitzea Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzian eta GHK SAU-ren inguruan ematen diren mugimenduen aurrean (Dokumentazioaren azterketa, helegiteak...).



BIGARRENA.- Gipuzkoako Hondakinen Kontsortizoari eta GHK SAUri proposatutakoa jakinaraztea.

Eta bileraren helburua beteta, arratsaldeko zazpiak eta bost direnean, Lehendakariak bilera bukatutzat eman du eta nik, Idazkari naizenak, guztia ziurtatzen dut.

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA